

Astekaria

1993ko abenduak 24 / 45. zbk.

# BARREN

elgoi

1.  
URTEBETETEA

## Zorionak!

San Frantzisko, 40 - Tel. 74 06 87 - ELGOIBAR



### ARTEGI

## GABONETAKO ESKEINTZA BEREZIAK

Larunbat arratsaldetan ere irekita



# ste.



*Zuek ere horrelako zerbait  
lortu nahi baduzu,  
Zatoz gugana.*

**ste.** PROIEKTOAK

Obren Gestio Teknikoa eta ejekuzioa, S.A.

San Frantzisko, 23 - behea  
20870 ELGOIBAR (GIPUZKOA)

TEL.: 74 10 94 - 74 37 50

FAX: 74 39 74



## PREMAZKO TELEFONOAK

### OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak...	741155
Txanda hartzeko ...	743354
Alkoholiko Anonimoak.....	740385
D.Y.A (anbulantzia) .....	464622
Gurutze Gorria.....	743864
Mendaroko Ospitala.....	756264
Drogomenpeketasun Z..	7410 08
Odol Emailen elkarteak.....	741190

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....	740442
PESA (Eibar) .....	112131
Taxi Geltokia .....	740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua.....	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua.	742158
Mendaroko Udala .....	756100.
Ongizate zerbitzua.....	743736
Udaletxea .....	741050
Udaltzaingoa .....	741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....	740142
IMI .....	741196
Kontsumo Bulegoa .....	743088
Liburutegia .....	743525
Musika Eskola .....	742145
Polikiroldegia .....	741361
Postetxea .....	741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza.....	740296
Zaharren Biltokia.....	740526

### IKASTETXEAK

Herri eskola.....	74 08 79
I.M.H. ....	74 41 32
Institutua .....	74 02 67
Ikastola .....	74 27 00
L.H.I.....	74 31 00
Pilar Ikastetxea .....	74 13 31

## AURKIBIDEA

- 5 ZENBAT BURU HAINBAT ABURU**  
"Umezurtz jaio nintzen"
- 8 ERREPORTAIA**  
Abenduaren 24ko Gabon sua
- 12 ASTE HONETAN**  
Nolako jostailuak oparitu? Kati Pons.
- 20 BERBETAN**  
German Meabebasterretxea: "Bertsoa legearen itzalpean"
- 21 BARRENEN 1. URTEBETETZEA**  
BARREN sarien aurkezpena.
- 28 ELGOIBARTARRAK GOGORATUZ**  
Gerardo Arriola Sarasketa "Pitxirri"
- 31 GAZTAROA ARO EROA**  
1993. urteko gazte protagonistak
- 32 KIROLA**  
Elkarrizketa: Ramon Mujika  
Gabonetako Kuadrilen arteko III. txapelketa
- 37 ELKARTEETATIK BUELTAN**  
Elgoibarko Izarra: Euskararen alde lanean
- 38 KULTURA**  
I. Etxegiña Bertso-Paper lehiaketa
- 41 TXOKORIK TXOKO**  
Arnoate baserria

### TXANDAK

#### FARMAZIAK:

- 25, larunbata: **ORMAZABAL**  
26, igandea: **ORMAZABAL**  
27, astelehena: **BIDASOLO**  
28, asteartea: **BIDASOLO**  
29, asteazkena: **BIDASOLO**  
30, osteguna: **BIDASOLO**  
31, ostirala: **BIDASOLO**  
1, larunbata: **BIDASOLO**  
2, igandea: **BIDASOLO**  
3, astelehena: **ETXE BERRIA**

- 4, asteartea: **ETXE BERRIA**  
5, asteazkena: **ETXE BERRIA**  
6, osteguna: **ETXE BERRIA**  
7, ostirala: **ETXE BERRIA**

#### OKINDEGIAK:

- 25, larunbata: **EZ DAGO OGIRIK**  
26, igandea: **ZABALETA**  
1, larunbata: **EZ DAGO OGIRIK**  
2, igandea: **EIZAGIRRE**  
6, Osteguna: **FOTERO**

## HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





# Iraegui

## ERROTULUAK ERROTULAZIOA SEÑALIZAZIOA SERIGRAFIA

**ERROTULAZIOA:** IBILGAILUEN MARKAKETA • MAKINAK •  
PANKARTAK • KARTELAK • ESKAPARATEAK • STAND-AK • ETAB...

**ERROTULUAK:** ARGIDUNAK ETA ARGIGABEAK • LETRA LAUAK ETA  
METAKRILATO, POLIMETANO, LATOI URTUA, ALUMINIOZKO ETA  
BESTELAKO ERLIEBEZKO LETRAK.

**SEINALIZAZIOA:** INDUSTRIALA • ERAKUSKETAK • AZOKAK • KIROL  
INSTALAKUNTZAK • ERAIKUNTZAK • BULEGOAK • ETAB...

**LARRIALDIETARAKO SEINALIZAZIOA:** SU-ITZALKETAK •  
EBAKUAZIOAK.

**SERGRAFIA:** ETIKETA AUTOERANSKORRAK • PLASTIKO ETA  
ALUMINIOZKO MARKAJEAK • MAKINETARAKO KARATULAK • ETAB...

### **FABRIKAZIOA ETA SALMENTA**

honako helbide honetan bateratu ditugu:

Olaso Poligono Industriala

Olaso Kalea 55zbk. A 3. solairua

Tel. 74 39 52 - 74 37 06 - FAX 74 39 51

**ELGOIBAR**



**ARGITARATZAILEA:**

Elgoibarko Izarra

**LAGUNTZAILEA:**

Elgoibarko Udala

**ZUZENDARIA:**

Alberto Agirreazaldegia

**HIZKUNTZA ARDURADUNA:**

Anjel Ugarteburu

**ERREDAKZIO KONTSEILUA:**

Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Eduarne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua

**KAZETARIAK:**

Ainhoa Lodoso

Jasone Osoro

**MAKETATZAILEA:**

Maite Rementeria

**PUBLIZITATEA:**

Nekane Etxaniz

**ADMINISTRAZIOA:**

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste

**KOLABORATZAILEAK:**

Myriam Aldazabal, Alberto

Ansuategi, Isabel Ansola,

Joxin Arregi, Belen

Arrizabalaga, Bertso Eskola,

Agur Miren Barandiaran,

Hasier Etxeberria, Ina

Garagarza, Maite Iriondo,

KOKOE, Imanol Larrañaga,

Koldo Lizarralde, Aitor

Lodoso, Nerea Lodoso,

German Meabebasterretxea,

Diana Perez de Albeniz,

Eduardo Sanz, Felix Urizar,

Aitor Zabaleta

**BANAKETA ARDURADUNAK:**

Imanol Larrañaga, Inaxio

Garmendia

**INPRIMATEGIA:**

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

**TIRADA:** 3.000 ale

**LEGE GORDAILUA:** SS-1.038/92

**ISSN:** 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

# Umezurtz jaio nintzen

**O**lentzerok ekarri ninduen mundura. 1992ko negua zen. Lehen egunak oso zailak izan ziren niretzat. Jesusen jaiotza bezalakoa izan zen. Ez nuen etxerik baina artzai asko azaldu ziren ni zaintzera. Bakoitzak zuen guztia jarri zuen eta, horrela, denon laguntzaz, nire hastapenak errazagoak bihurtu ziren. Batzuek zioten ez nuela asko iraungo, bi edo hiru hilabete gehienez. Baina laster ohartu nintzen esku egokietan nintzela. Ez nuela izan behar beldurrik.

Lehenengotik iriki zizkidaten etxe guztietako ateak. Sukaldeetako epelean egon naiz astero-astero. Denek esku zabalik hartu naute eta iada etxeko bihurtu naiz familia gehienetan.

Denek ez naute berdin maite. Batzuek gogoko naute, gehienek esango nuke. Beste batzuek ez hainbeste. Ez dira fido nirekin. Baina denek behar naute.

Ostiralero izaten naiz ate joka. Gustura irekitzen dizkirate ateak. Irrikan egoten da jendea ni eza-gutzeko. Asko-

tan haserretzen dira familiak, denek besoetan hartu nahi nautelako. Aitona-amonak, gurasoak, haurrak, denak ditut gogoko.

Eskutitzak ere idazten dizkirate. Oraindik ez dakit irakurtzen baina ilusio handia egiten didate. Haserre bat edo beste ere sortu dut dagoeneko. Batzuentzat ausarta naiz eta besteentzat nerabea. Ez dudala esaten egia guztia diote, baina ni horretan asko saiatzen naiz. Ez dut gogoko gezurrik esatea.

Nik asko maite zaituztet. Esku-zabal hartzen nauzue. Horregatik, denok zarete nire gogoko. Ez dakit oinez ibiltzen. Ezin naiz urrutira joan. Beraz, zuen laguntza beharrezkoa dut. Ez nazazue utzi umezurtz.

Oraindik ez dakit hitzegiten. Hitz bakar batzuk besterik ez ditut esaten. Baina ikasiko dut eta orduan ipuin politikak kontatuko dizkizuet. Badakit esaten zenbat urte ditudan. Behatza ere jartzen dut adierazteko. Nire izena

berriz badakizue zein den. Bai, **BARREN** naiz eta urtebete egiten dut gaur. Eskerrak bidali didazuen zorionengatik eta urte askotan izan gaitezen halaxe.



*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*







## GALDERAK

Zer ari dira egiten San Bartolome kalean hutsik dagoen solar horretan? \* Udaletxean esan digutenez, lau pisutako eraikuntza bat egiten ari da enpresa pribatu bat, pisu bakoitzean etxebizitza bakarra egongo delarik.



## TXALOAK

Gabonetan Elgoibarko ezaugarri bihurtu den jaiotza erraldoi ikaragarri hori egin duten guztiei.



## KEXAK

Krisi garai hauetan ez al da gehiegizko gastua herriko kaleak Gabonetako argiz apaindu eta arratsaldeko bostetan piztea?

Herritarrok zuzenean har dezakezue parte atal honetan. Nahi duenak idatziz bidal dezake baina badago aukera mezua **BARRE**neko erantzungailu automatikoan uzteko ere: 74 41 12. Kexak edo salaketak plazaratzeko txokoa izango da honako hau. Baita edozer/edozein txalotzeko ere. Edozerri buruz zerbait jakin nahi duenak galdera bidali eta gu arduratuko gara erantzuna aurkitzeaz. Ohar bakarra: ahalik eta zehatzenak izan, labur eta argi azaldu mezua. Eta animo!

## ESKUTITZAK

### Gabonetan presoak gogoan

**A**mnistiaren Aldeko Batzordeak elgoibartar guztioi jai zoriontsuak eta Urte Berri on bat opa dizkizue.

Lagunarte eta senitarte egun hauetan, ezin ditugu ahaztu etxetik kanpo, bai kartzelan bai exilioan, dauden elgoibartarrak. Batzuek bederatzi urte daramatzate espetxean Gabonak senideekin pasatu gabe.

Horregatik, herritar hauei gutunak, postalak, liburuak, aldizkariak... bidaltzera animatzen zaituztegu.

Gure herriko zaititxo bat hurbildu behar diegu. Gure herrira hurbildu behar ditugu, Elgoibarrera.

*"Gaur, Urte Zahar eguna,  
-zigor zeldatan nagoela-  
lagun artean joan naitekeela  
erran dit  
atzo umilatu ninduen gartzeleroak;  
egun berezia dela eta  
bere umeen artean  
kontzientzi agarbiarekin  
agertu nahi duela.*

*Kontzientzia astean behin  
garbitzen dugun mihisea  
balitz bezalaxe..."*

Elgoibarko preso politikoei idatz iezaiezu:

\*Juan Inazio Iriondo Garate  
Centro Penitenciario de Caceres-1  
190 Posta kutxatila. Caceres.

\*Iñaki Jaio Bustindui  
Ramon y Cajal kalea, 51.  
80. posta kutxatila. Huesca.

\*Sebastian Etxaniz Alkorta  
Centro Penitenciario Madrid III.  
Pinto errepidea, 5. km-a.  
28340 Valdemoro, Madrid.

\*Mikel Alberdi Zubizarreta  
Cordobako Probintzi Kartzela,  
2. moduloa.  
Mahatma Gandhi Plaza, 479 posta  
kutxatila. Cordoba.

\*Mikel Ibañez Oteiza.  
Carcel Central Hombres  
San Jose kalea  
Montevideo, Uruguay.

### Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Batzordea

Datorren ostiralean, hilak 31, ez da **BARRE**Nik egongo. Hurrengo alea urtarrilaren 7an kaleratuko dugu.

## Oinetakoak

# OSOBOS



San Frantzisko 32  
Tal. 74 02 35 - ELGOIBAR

## PUB

elgoibar

## ASGI

taberna

Urasandi 1,2.zbk.  
Tel: 74 28 38





AZKUE

**A**ste honetako erretratua Maite Izagirrek laga digu. Hauek ere, aurreko astekoak bezala, Pilar ikastetxeakoak dira. Erretratua 1953. urteko abenduaren 24an ateratakoa da. Berrogei urte pasa diren arren batzuek ez dira batere aldatu ( nahi duzuenean pasa BARREnetik dozena bat pasteekin ). Ikus dezagun zeintzuk diren erretratuan azaltzen direnak. Goitik behera eta ezkerretik eskumara:

Jesus Ortueta, Alfredo Santos, Patxi Betelu, Gerardo Garate , Xabier Gurrutxaga, Roberto Mata, Luis Oleaga, Jesus Arakistain, L.M. Barre-

netxea, Juan Esnaola, J.M. Barrenetxea (Borrajen), Julian Uribe, Antton Zabaleta, Xabier Saez, Ignacio Garagarza, J.M. Astigarraga, Ramon Artola, L.M. Muruamendiaraz, Antton Zubiaurre, Pako Gurrutxaga, J.M. Etxaniz, Ciriaco Leizabe, Pedro Etxeberria, Ignacio Bereciartua, Ixidor Sodupe, Antton Arrillaga, Rosendo Egurrola, Jose Ignacio Elkoro-Iribe, Manolo Gurrutxaga, Alberto Epelde, Antton Etxeberria, J.M. Barrutia, Manolo Santos, Eduardo Bereciartua, Gillermo Gorostiza, Manolo Esnaola (Muxi) eta Jose Migel Etxeberria.



## PEDRO OSORO urdaitegia

*Gabon zoriontsuak opa dizkizuet herritar guztioi eta bereziki urtean zehar zuen konfidantza erakutsi didazuenoi.*

*Zaharra ondo bukatu eta berria hobeto hasi!*

Merkatu Plaza, 37. zbka. 74 25 36



San Frantzisko 26, behea  
Tel: 74.26.21



# Abenduaren 24ko

**Aspaldiko garai batean jentilak bizi omen ziren Euskal Herrian. Behin, zeru goian, hurbiltzen ari zitzairen hodei disdiragarri bat ikusi zuten. Jentilen artean zaharrena zenari argi hura zer ote zen galdetu zioten, hara erantzuna: "Kixmi jaio da. Gure arrazaren amaiera iritsi da. Mundu honetan ez daukat zereginik, bota nazazue amildegian behera".**

**Z**aharra bota ondoren, gainontzeko jentil guztiak maldan behera abiatu ziren, laisterka, ikaraturik. Antxintxiketa hartan, haietako bat ustegabeen erori zen eta beste guztiak ere jausi arazi zituen ikaragarritzko harri lurjausi bat eraginaz. Jentilak lurperatuak geratu ziren.

Jentil haietako bakarra salbatu zen: Jesukristoren jaiotzaren berri ematera menditik herrira jeitxi zen Olentzero. Ikusi zuten hodei argitsu hura, Kixmi, Jesus baitzen.

Arrantzale mozkorra donostiarren artean, 365

begi dituen gizona Larraunen, aurpegi beltza Elduaingoan irudiaren arabera eta begi gorri, sutsuak zarautzarentzat. Hainbat eta hainbat itxura diferente eman izan zaio pertsonaia honi Euskal Herriko txoko ezberdinetan mendeetan zehar.

Elgoibarren baserriar arropaz jazten dugu, bizar handi eta pipa luzeaz ahoan, buruan, txapela. Txorizo, arraultze, odolki eta ardo gorri goxoa ere ez dira sekula Olentzeroren ondoan falta. Berau dugu Gabonak bete-betean sartu direnaren seinale.

Baina, Olentzerok Jesusen jaiotzaren berri

ematen duela aipatu dugun arren, Gabonak Kristo jaio aurretik ere ospatzen ziren. Garai haietan, ordea, neguko solstizioari zegozkion festak izan ohi ziren, hau da, udazkena utzi eta neguan sartzen gareneko aroa. Urtaro berria hasten da egun horretan, hortik datorkiolarik Eguberri izena, oraindik ere mantentzen dena, nahiz bestelako zentzu batekin.

Gabon hitzak ere badu jatorri bitxirik. Ekaina-



## Muruamendiaraztarren Gabonak

**- Horrenbeste pertsona izanik, non sartzen zarete guztiak?**

- Zazpi anai-arreba gera eta urtian zihar igandero elkartzan gera pastelak itxeko daukagun lokalian, hogeita hamabi guztira. Baina Gabonetan banatu itxen gera, erdixak 24 eta 25ean, beste erdixak 31 eta 1ean. Fetxa berezixak dira eta gure senar-emaztion familixiangan ere jua biharra izaten dogu.

**- Kontaiguzue nolakoa da zuenian Gabon Gaua.** - Gehixenen antzerakua. Afarixa prestatzen dogu, mahaixa dotore-dotore ipini, gabonetako abestixak kantatzen ditxugu, txistiak, karta jokua... Umiak disfrazatu eitzen dira. Aurpegia beltzez pintatzen dabe, Baltasar erregiak bezela. Horren kontura nahikua barre sortzen da gure artian.

**- Eta Zaharra?** - Antzera, oso ondo. Pega txiki bakarra dago, guztiak alde eitzen dabe kalera eta, klaro, anbientia bajatu eitzen da pixka bat. Hala ere, gabeko hama bixetan, denok batera jaten ditxugu mahatsak urte berrixari ongi etorrixa emanaz.

**- Lehengo Gabonak eta hauek aldatu al dira?**

- Apenas, oso antzerakuak dira. Igual, diferentzia bakarra lehen bixigua jaten genduala eta orain lujo bat dala.

**- Zuenian ematen al da "errementariaren etxean zotza burduntzi" esaera?** - Keba! Oso gozozaliak gera. Pastelak, tartak, turroiak... danetik egoten da. Bere zixena, hala ere, gure amak urtero eitzen daban konpotia da. Haura bai dala gozua!





# Gabon sua

ren 24an udako solstizioa ematen da, udaberria atzean utzita. San Juan suak ospatzen dira. Esaerek diotenez, abenduaren 24an ere su erraldoi bat eginez ematen zizaion ongi etorria neguari. Herriko

enparantza nagusian Olentzero erretzeko ohitura zegoen. Sutzen ez zen egur zatia pizturik mantentzen zen, hurrengo urteko Gabon Gaueko sua berpizteko. Eguberriko su horri "Gabon" hitzez deitzen zaio.

Euskal Herrian gabonetako egunik garrantzitsuena Gabon Gaua da. Familia osoa biltzen deneko gaua izaten

da, mahai inguruan, afari goxoz, kontu eta kantu alaiz une atsegin bat igaro gogoz.

Gaur egun duen familia izaera hori, ordea, ez zen era berean ematen aintzinan. Orduan, 24tik 25erako gaua orjia gaua omen zen, festa, desinibizioa, erokeria... Ihauteriek duten izaera beretsua zuen.

Gauzak aldatu egiten dira denboraren poderioz.

Urte Zaharrak ere izan du bilakaerarik historian zehar. Gezurra dirudien arren, aspaldian Gabon Zaharra senitartekoekin igarotzen zeneko gaua omen zen. Gabon Gauarekin eman den alderantzizko aldaketa, beraz.

Urteko azken gauean ohitura benetan bitxiak

ematen dira. Hedatuena, gauerdian, hamabiak jotzean, kanpai bakoitzeko mahats ale bana jatea da.

Garai batean, hamabiak jo eta berehala herri inguruko iturrietatik ura jasotzeko usadioa zegoen, ur hura berezia, sendagarria, magikoa zelakoan. Gabon Zahar gauean baita ere, mutilek neskei oin eta eskuak lotzen zizkieten, neskek biharamunean janalditxo batera gonbidatuko zituztela zin egitean bakarrik askatzen zituztelarik.

Kontuak kontu, mitoak beti mito. Ipuinen bukaeretan idazten den bezala, "hau hala bazan sar dadila kalabazan eta irten dadila Elgoibarko Plazan". Gabonak ondo pasa eta urte berri on!!



## Gabon zahar gaueko ohitura bitxi bat

**A**benduaren 31n Elgoibarren ohitura benetan bitxia ematen da. Herritar guztiek ezagutzen ez duten arren, familia batzuek urteroko tradizio bilakatu dute. Hara honi buruz kontatu digutena:

Kondetar batek gogoratzen duenez, duela berrogei urte, gutxi gora behera, Jesusa Mugerza seroria izan zen lehenengo aldiz etxetik San Bartolome kalera plater bat bota zuena. Motiboa?

Beharbada Urte Zaharrekin batera etxeko gauza zaharrak (traste eta penak...) kanpora jaurtitzea edo...

Seroria Urte Berriaren sarrera Kondetarrekin ospatzera jaisten zen tabernara. Handik aurrera, urtero Plaza Haundira irteteko ohitura hartu omen dute abenduaren 31 gauean. San Bartolome Parrokiko kanpaiak hamabiak jotzean, Seroriak, seigarren kanpaiaren inguruan, plater zahar bat bota ondoren, familia

guztiak, korroan, honako bertso hauek kanta izan ditu:

*Urte berri eguna ez dala egun txarra kortara jausi dala gure zapai zaharra.*

*Urte berri berri txarri belarri daukanak ez daukanari nik ez daukat eta neri kantaretan bat kantaretan bi ekatzu aginaldo Jaungoikuagatik. Aginaldo, aginaldo intxaurrak bota eta ixilduko.*

Hasieran Kondetarrek bakarrik irteten ziren. Azken urteotan familia gehiago hasi dira honen inguruan biltzen: Gorostiza tabernakoak, Riverotarrak...

Gaur egun jende dexente arrimatzen da plaza aldera ordu horretan eta plater bat ezik ontzi dexente ere apurtzen dira.





**G**abon jaietako bi egunik "fuerteenak" 24 eta 31ko gauak dira. Lehenengoa familiarekin egoteko gaua izan ohi delako eta bigarrena, urteko azken eguna izanik, baduelako izaera berezi bat. Azken urteotan badirudi 24 gauean ere kalera irteten

hasi dela jendea, gazteak bereziki. Honi buruz iritzi ezberdinak jaso ditugu kale inkestan.

Bestalde, 24 eta 31 gauak lanean emango dituzten bi pertsonekin hitzegin dugu, hara kontatu digutena labur-labur.

## Gabon gauean irtengo al zara?



**ESTHER ARAKISTAIN**  
24 urte, ikaslea

Bakoitza nahi duena egiteko aske da. Niretzat gau hori familiarekin egotekoa da. Badaude egun gehiago irteteko, behin etxean geratzeagatik ez da ezer pasatzen.



**IÑIGO ORTUOSTE**  
26 urte, kamara.

Nere ustez ateratzia ez dago batere gaizki. Ni iaz urten nintzan eta aurten ere seguramente urtengo naiz.



**BITTOR ARRIETA**  
67 urte, jubilatua.

Gu ez gaude horrela ohi-txuta. Ni tradiziua mantentzian aldekoa naiz. Nik ez diot ondo irizten, baina semiak esaten badigue irten bihar dabela, ze egingo dogu ba?



**AGURTZANE VICUÑA**  
34 urte, etxekoandrea.

Neri familixiakin egotia gustatzen jata eta ez naiz sekula urten, baina ambiente ona egongo balitz, zergatik ez?

## Gabonak lanean pasako dituztenak



**OLGA VELA**  
Mendaroko ospitalean  
ginekologi saileko erizaina

“Aurten, 24 gabian lan egin bihar dot, gabeko bederatziatik goizeko zortziak arte. Gabon Gabian etxian ez egotia ez jata oso gogorra itxen ze gero 25ean eta 31n ere pertsona berdi-

nak elkartzen gera. Nahixau dot 24n eukitzia biharra 31n baino. Gabon Zahar egunian, familixia elkartiaz gain, gero lagunekin kalera urten eta juergia eitzeke aukeria egoten da. Gainera, ospitalian oso giro ona dakagu gure artian eta xelebriz izango da gau berezi hori elkarrekin pasatzia. Eri-zain, ginekologo, pediatra, matrona eta auxiliarra... guztira zazpi bat pertsona bilduko gera. Bakoitzak zerbait eraman eta gure artian ospatuko dogu gau hori. Lan gehixegi ez egotia espero dot, aste horretan ebakuntzarik ez da itxen eta. Hala ere, iaz hiru erditze egon ziran, beraz...”

**JOSEBA LONGARTE**  
Autopistako peaje  
kobratzailea

“Urtarrilak lean goizeko bost'erdietan sartzen naiz lanera, eguerdiko ordubat'erdia arte. Kontratua firmatu nabanian banakixan ze ondorio zeuden eta mentalizatu egin

nintzan. Aurten neri tokatu jata egun horretan lan egotia, hurrenguan libre eukiko dot. 24 gabian ere jun bihar naiz lanera, baina gogorra da 31 galtzia ze badakizu lagunak hor zihar dabizela iji eta aja eta inbidixa piskat emaitzezu. Bueltatxo bat ematera irtetzia ere pentsatu dot baina keba, segurasko ez naiz aterako. Gainera ez pentsatu egun horretan lan gutxiago egongo danik ze hemen ere “la ruta del bacalao” delakua ematen da, Bilbon hasi eta Donostia bitartian. Jendia, kontrolak eskibatziarren, autopistaz ibiltzen da”.









# GUASS

*dantzalekua*

-EGUBERRION! Goizeko ordubatean zuen zain gaituzue. **Sorpresa** ere izango da!

-Gabon Zaharrean, urte bukaerako demaseko **Kotilloia**. Sorpresa eta guzti!

## JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI" Edari Banatzailea



SANTA ANA 41. ☎ 74 10 41 - 74 11 32



*ibai-ondo*  
*Erretegia*

Giza eskubideen Plaza

**NOZKI**

**DIETETIKA  
KONTROLA**

Foruen plaza, 5  
Tel. 74 08 78



**ITZALA**

*Edergintza*

San Frantzisko, 49 - 1 esk.  
Tel. 74 43 03 - ELGOIBAR

**EL TELAR**

OIHAL DENDA

*Urte Berri On Elgoibartar guztioi!*

San Bartolome, 4. ELGOIBAR

**AZPELETA** elektrizitatea

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ARGIZAPENAK
- AUTOMATISMOAK

*Ondo pasa Gabonak!*  
San Frantzisko 51, behea. Tel: 74 12 38

## Nolako jostailuak oparitu?

**J**okua dibertsioa da eta jostailuak ume batek ondo pasa dezan balio du. Beraz, jokua zein jostailuaren helburua dibertsioa da.

Jostailua eta jokua funtsezkoak dira umearen hezkuntzan. Beraien bitartez, elkar ezagutzen eta pertsonekin eta inguruko gauzeekin harremanak izaten ikasten dute. Jostailuak berebiziko garrantzia dauka haurren sozializazio prozesuan. Sei urte bete arte, denbora gehiena jostailuekin ematen dute eta; adin horretatik aurrera, ikusten dutena barneratu eta birproduzitzen dute.

Jostailua erosteko orduan honoko ohar hauek kontutan izatea komeni da:

- Jostailua haurraren adinera egokitu behar da.

- Jostailuek haurraren ahalmenen eragingarri behar dute izan. Haurra jokua-  
ren sujetu aktibo bihurtu behar dute eta bere trebetasunentzako eragingarri egokia izan.

- Negatiboa da istilu belikoak birproduzitzen dituzten jostailuak oparitzea. Hauen arabera, gizarte biolento eta konpetitiboaren erudia errepikatzen dugu. Jostailu belikoek istiluak konpontzeko modu bakarra azaltzen diote umeari: biolentziaren bitartekoa, alegia.

- Bideojokuek aktibitate erreflejua

indartzen dute baina istiluak konpontzeko bide bakar modura biolentzia planteiatzen dute. Individualismoa, bizitzeko eredu bezala indartzen dute. Bideojokuek konpetitibotasunaren kultura bul-tzatzen dute, berau legitimatuz.

- Estereotipo sexistak birproduzitzen laguntzen dituzten jostailuak ez dira gomendagarriak.

Jostailuek sendoak eta gogorak izan behar dute eta erakargarriak ere bai. Seguruak izan behar dute, haurrentzako arriskutsuak ez izateko segurtasun arauak izan behar dituztelarik. Gainera, prezio-kalitate erlazioa gorde behar dute.

Azkenik, zera esan: Ez ahaztu zu zure zure haurrarentzat edozein jostailu bano inportanteagoa. Zure seme-alabekin jolasten disfruta ezazu. Eman oporrak telebistari. (Erredakzioan itzulia).



KATI PONS  
Drogomenpekotasunen  
Prebentziorako teknikaria

**oizmendi**

Tel: 74 00 16

**TABERNA**

**Arantzazu** edergintza

**I SOLARIUMA**

**I Aurpegi eta gorputz tratamenduak**

**I Depilazioak hotz eta beroan**

San Inazio, 4. ☎ 74 27 25 ELGOIBAR



## Zer eskatu diozu Olentzerori?



**Maite Cornejo**  
9 urte, 4. maila

Kalkuladora bat. Normalian ez diate jostailuak eta kopinak erregalatzten. Hiztegixak eta holakuak, eskolarako gauzak.



**Mikel Muñoz**  
7 urte, 2. maila

La aventura del volcan eta Playmobil. Jostailu gehiago ekartzea nahiko nuke; baina ezin da ze, bestela, Bosniakoentzat ez da geratzen.



**Gorka Garate**  
8 urte, 3. maila

Kalkulagailua, Ikastolan bihar dogulako, eta jostailu bat. Ondiokan ez dot pentsatu zer, baina ekartzen diatenarekin konformatuko naiz.



**Julia Fernandez**  
10 urte, 5. maila

Choconova, Barbiren erropa bat, ordenagailu txiki bat, joku bat eta zapatila batzuk. Gehixen Erregiak gustatzen jataz.



**Ohiana Martinez**  
10 urte, 5. maila

Joku bat telefono bate-na, txandal bat eta diabolobat. Erregietan eta Olentzerotan ekarriko diate. Gehixen gustatzen jatana jokua da.



**Aitor Gisasola**  
10 urte, 5. maila

Blandiblu, pelutxiak, Gremlins, eta Erregietan erropa batzuk. Eta gero, ekartzen diatena. Eibarraren ere ekartzen diate eta tian etxian ere bai.



**MITZ BIZKAR**  
**ARDOAK**

ARDO ETA PATTARRA  
PATATA SALMENTA

Errosario 18. Tel. 74 02 37



**PINTURAK**

- Fatxadak
- Komunitateak
- Mota guzietako lanak

San Roke 30 behe Tel. 74 36 52



**karkizano**

San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49



**Arrieta**  
*modak*

San Bartolome 18. ☎ 74 08 49



## ■ 15 jaiotza arkeztu dira Parrokiak antolatutako lehiaketan

San Bartolome parrokiako kristau ikasbideak antolatutako jaiotzen 7. lehiaketan 15 jaiotza ezberdin aurkeztu ziren. Lehen saria Ganix eta Hodei Ostolazak egindako lanarentzat izan da eta Gipuzkoako Belenzaleen elkarteko garaikurra eta 10.000 pezetako saria jasoko dute. Lankide Aurrezki Kutxako garaikurra eta 8.000 pezetako saria Nahiara Alguacil eta Beñat eta Gotzon Gutierrezentzat izan da eta hirugarren saria, Jaiver eta Sheila Novoa eta Luis Ricardo eta Gabriel Alves anai-arrebentzat. Lau gaztetxo hauek Garagarza erlojudendako trofeoa eta 6.000 pezetako saria jasoko dute.

Argazkiko jaiotza Alex Viñarasek egindakoa da eta mugimendua dauka. Horrek sari berezia merezi izan dio Alex-i. Sari gisa Aranburu erlojudendako trofeoa jasoko du. Lehiaketan parte hartu duten lan guztiak ikusgai daude Errosario kaleko leian.

## Mugimendu eta irudimenezko jaiotza



**Zalantzarik** ez dago gure herriko jaiotza egiten dutenei ez zaiela irudimen eta pazientziarik falta. Jadanik ohitura bihurtu da mugimendu zein baino zein harrigarriagoak dituzten figurak ikustea eta horren adibide dira aurten egin dituzten 14 figura berriak. Batetik, San Jose, amaitu gabe daukan sehaska egiten ari da eta Amabirjinak haurtxoa besoetan daukala kulunkatzen du. Beste berrikuntza bat, sehaskan dagoen ume bat kulunkatzen duen amona da eta egurra mozten duen arotza. Hala ere, ikusgarrienetarikoa pausuk ema-

ten dituzten 10 irudi dira. Oinezkoak 4 metroko luzera batean ibiltzen dira 5 etxeren aurretik pasatuz. Gaua egunaz jabetzen denean 5 ibiltarik daramatzaten suziak piztu egiten dira. Hauei, aurretik egindako mugimenduak gehitu behar zaizkie: aingerua, izarrak, garbitzailea, noria e.a.

Jaiotza urte guztian zehar egiten jarduten dute. Aurten obrak direla eta, parrokian ordez, Leku-Eder-eko lokal batean egongo da jaiotza. Leku berrira egokitu beharrak muntaia lanak 3 hilabete lehenago hastera behartu ditu jaiotzako kideak.

**PILAR IKASTETXEA**  
Elgóibar

**1993**  
Zorionak  
eta  
**Urte Berri On**

*Kartutxo*  
*Pub*

S. Frantzisko, 33 ☎ 74 27 24

**LANDA**  
**HARATEGIA**

Gabon  
Zoriontsuak  
eta  
**Urte Berri On!**

San Frantzisko 23,  
Tel. 74 27 58





**Pilar** ikastetxeko eskolaurre eta lehen mailako hurrek Gabonetako jaialdia antzestu zuten joan den hilaren 17an ikastetxeko gimnasioan. Guraso eta irakasleak erne egon ziren seme-alabek antzetzutako Gabon jaialdiari begira. Argazkian haurrak, lana antzesten martziano eta guzti.

**Elgoibarko** lekurik altuenean jarritako jaiotza izango da argazkian ikusten den hori. Hemen ikusten ditugun haur mordoska hau Morkaikoraino igo zen joan den igandean, hilak 18, guraso eta zenbait gazterekin batera, aspalditik datorkigun ohiturari jarraiki. Guztira 60 pertsona inguru batu ziren, eta datorren urtean ziur aurtengo kopurua gaindituko dutela.



*Garbiñe Edergintza*

- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
- Depilazio elektrikoa eta hotzean.
- Solariuma

P.M. Urruzuno 27. Tel: 74 31 32

*Zorionak eta Urte Berri On!*

*Classy*

San Frantzisko 56. ☎-FAX 74 02 40 ELGOIBAR

- ★ OPARIAK ★ FOTOKOPIAK ★ ESKOLARAKO MATERIALA
- ★ FAX PUBLIKOA ★ ENKUADERNAKETAK
- ★ TESTU ITZULPENAK INGELESERA

*Zorionak!*

**MAITE**



GOZOTEGIA  
IZOZKIAK

**Berton eginak**

San Frantzisko, 15  
Tel. 74 16 88



## ■ Elkarrik sinadurak bilduko ditu

Elkarrik, elkarrizketa bultzatzeko mugimenduak, sinadura bilketa egingo du datorren hilaren 31an, Gabon Zahar egunean, feria eguna aprobetxatuz. Elkarriko kideak King-Kong parean eta Banco Santander aurrean egongo dira goizez eta arratsaldez.

## ■ Gabon Zaharreko Feria

Aurten arraro xamar tokatu zaigu Gabon Zahar eguneko feria. Larunbata izan beharrean, ostirala da eta gainera, urte berriari ongi etorria eman behar. Dena den, elgoibartarrok bueltatxo bat eman beharko dugu Plaza handitik, Euskal Herri osotik etorriko diren baserritarren saltokiak ikusteko. Denetarik egongo da ikusgai: barazkiak, fruituak, loreak, hegaztiak, eta ogi, ezti, urdai etabarren salmenta. Epaimahaiak, atal bakoitzeko hiru produktu onenak sarituko ditu. Herriko onenak eta saltoki onenak ere saria jasoko dute.

## ■ AEKren zozketa

AEK euskaltegiak egindako zozketan 78.657 zenbakia izan da saritua. Zenbakia, hilaren 21ean, ONCEren zozketan irteadakoa da eta saria, hilero 150.000 pezetako soldata izango da urtebetean zehar.

## "Ekekei" antzerki taldeak lan berria estreinatuko du otsailean



**Ekekei** antzerki taldeak "Hiltegia" bere azken lanaren aurre estreinaldia egin zuen joan den larunbatean. Azken lan hau aurrerapausu berria izan da antzerki taldearen bizitzan. Kaleko eskenatokian ibilita, oraingoan antzokiko taula aukeratu dute antzezlan burutzeko. "Hiltegia", boterea eta bere inguruan, denboraz kanpo, sortu eta garatzen den istorio klasikoa da.

Pertsonaiek, borroka etengabe batean, norberaren interesei gogor helduaz aurrera egiten dute. Aukera, garaitu ala hil izango da.

"Ekekei" antzerki taldeak otsailean estreinatzeko asmoa du "Hiltegia" lana. Dena den, data ez da finkoa, Herriko Antzokiko berrikuntza lanak noiz bukatuko zain baitaude estreinaldiaren eguna jartzeko.

**ecenarro**


- Barruko erropak
- Umeentzat erropak

*Zorionak eta Urte Berri On!!*

San Frantzisko 10,  
Tel.: 74 26 19

**ELKARLANA, BAKEA, BURUJABETASUNA,...**  
*euskal gizarteak elkartasuna eta konfidantza berreskuratzeko behar dituen tresnak.*

*Halere, urte zaharra ondo amaitu eta berrian egoera hobetzen saiatzeko konpromezua hartu.*  
**Zorionak!!**



**EUSKAL EZKERRA**



**Idama** ileapaindegiak BARRENen egindako lehiaketako zozketan Imanol Larrañaga izan da irabazlea. "Idama" ileapaindegiari esker Herri-Gain tabernan bi lagunentzako afari bat irabazi du Imanolek. Gabonetan jaki gozorik falta ez arren, Imanolek eta bere gonbidatuak jaiak ondo baino hobeto errematatzeke aukera izango dute. Zorionak!



**Artegi** lehiaketan egindako zozketan Agapita Soraizi tokatu zaio Sony telebista. Agapitak poz pozik jaso du oparia, daukaten telebistari heldu baitzaio jubilatzeke ordua. Eta begira nondik, BARRREN eta Artegiren eskutik telebista bat tokatu zaion. Bejondeizula Agapita!

## ■ Urte bukaerako mendi irteera antolatu du Morkaiko elkarteak

Gabon Zahar eguneko ohizko mendi irteera hilaren 30rako, osteguna, antolatu du Morkaikok, 31ean Gabon Zaharreko feria baitago. Morkaikok San Adrian Aizgorri eta Arantzazuren arteko mendi trabesia proposatzen digu. Irteera goizeko 8etan izango da Sigmako zubitik. Bazkideek 800 pezeta ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek, aldiz, 1.000 pezeta.

foto | azkue

ANIVERSARIO  
**20**  
1973 - 1993  
URTEURRENA

San Bartolome 26, Tel. 74 08 48

**Lizzy**

Errosario, 25 - ☎ 74 23 02

GAZTEENTZAKO  
MODA

**TXURI BELTZ**

Taberna

San Franzisko 38

**KATIUSKA**

Taberna

Errosario 28. Tel. 74 0038 ELGOIBAR



# GRAFFITI

Herriko artistek eginiko obrak isladatuko ditugu horma honetan. Bidal itzazue zuen lanak

**BARREnera:**

marrazkiak,

karikaturak, komikiak,

poesiak, bertsoak...

Edozer! Jzen-abizenak

ere bidaltzea eskertuko

genuke. Hala ere,

egileak bere sinadura

agertzea nahiko ez balu

ez genuke jarriko.



FELIX URIZAR

## INTERIORES

-PROIEKTUAK

-ERREFORMAK

-LOKAL KOMERTZIALAK

-ETXEBIZITZAK-ENPRESAK

CLARA ARRILLAGA

Dekorazaila-Proiektazaila

Tel:74 40 55-74 40 19. Errosario 15

## Txiriboga Taberna

GOSARIAK, PINTXOAK ETA OTARTEKOAK

*Zorionak eta Urte Berrri On!*

Plaza merkatua 23-24



JOSE ANGEL  
ZABALA

URDAITEGIA

Berezitasunak:

-Bakilaua

-Txerrikiak

Merkatu Plaza 33-34





24 urtetan zehar **Untzon** taberna  
elgoibartar guztien  
zerbitzura egon da.

Istera goazenez, hilaren 29an,  
asteazkena, arratsaldeko 6etatik  
aurrera izango den luntxera  
gonbidatzen zaituztegu.

## Elgoibarko EAJ-PNVk

*JAI ZORIONTSUAK opa dizkizue  
Herritar guztioi.  
Urte Zaharra ondo bukatu  
eta  
Berria hobeto hasi.*



Zuen adiskidetasuna eta laguntza eskertuz.  
Gabon Zoriontsuak opa dizkizuegu.



**MORKAIKO  
MENDIZALE ELKARTEA**

*50. urtemugako  
liburua salgai  
1.000 pta.*



German Meabebasterretxea:

## Bertsoa legearen itzalpean

**Ostegunean, hilak 23, arratsaldeko zazpiteratik aurrera, Kultur Etxean ezohizko hitzaldia entzuteko parada izan genuen. Ezohizkoa, batipat, aukietan eseri genituen hiru pertsonai horiengatik. Bertan, "Jabetza Intelektuala eta Bertsolaritza" izenburupean, lanaren egilea den German**

**Meabebasterretxea bertsolari elgoibartarra, Santi Goñi Zuzenbide Fakultateko irakaslea eta gai honetan aditua, eta azkenik Euskal Herriko bertsolari txapeldun berria dugun Andoni Egaña izan genituen. Jakinmin hau eta gehiago asetu nahirik Germanengana jo dugu.**

**- Noiz eta nola nola bururatu zitzaizun lan hau egitea?**

- Zuzenbide fakultatean lan bat egiteko aukera izan nuen, eta apartaturiko gaia "Jabetza Intelektuala" izan zen. Gertutasunagatik edo bertsolaritzarekin lotzea erabaki nuen. Pasa den urteko Martxoan eman nituen lehen urratsak.

**- Laburbilduko al zeniguke lanaren edukia?**

- Ni abiapuntu batean oinarritzen naiz, "Jabetza Intelektualeko legean". Lege honek autore batek dituen eskubide multzoa adierazten digu, alde batetik eskubide pertsonalak eta bestetik patrimonialak. Autore orok du lege honen babesa, har dezagun bertsolaria ere autore bezela eta bi elementuen uztarketa egin.

**- Bestelakoan zertan ari zara azken boladetan?**

- Ikasketak amaitzeko bi asignatura falta zaizkit eta bitartean Deba Beheko eta Araba-Errioxako ikastola eta bertso eskola batzutako ardura daramat.



**"Har dezagun bertsolaria ere autore bezala"**

"Jabetza Intelektuala eta Bertsolaritza" lanak ere nahikoa denbora kentzen dit.

**- Ez al da arraroa Errioxako Ikastoletan bertsolaritza ematea?**

- Neuk ere askotan pentsatu izan dut hori kotxean haruntz noala, baina bigarren bidaiara egin eta gero, konturatu naiz Gasteiz igaro orduko beste mundu baten sartzen naizela eta paraje

haietan bertsolaritza ematea zaletasun bide edo euskera lantzeko elementu bat dela, ez dugu usteko ba Logroñotik bost kilometrora bertsolari bat sortzerik.

**- Euskerak bertsolaritzari asko zor diola uste duten horietakoa al zara?**

- Bai, zeren nahi edo ez bertsoa eta bertsoaren inguruan mugitzen den guztia euskera hutsean

egin beharra dago, baina alderantziz ere neurri haundi batean, bertsoak euskara bait du lehengai. Baian esan behar da bertsoaren laburtasunak, estutasunak eta bapatekotasunak sarri ez dutela uzten hizkuntza behar bezala tratatzen. Hor ahalegin berezi bat egin beharrean gaude, ustez behintzat auskeraz hitzegiterakoan arazorik ez duenak ere oholtza gainean "porru" galantak bota ditzazke.

**- Zer sentitzen da puntako bertsolarien artean kantatzen?**

- Ezer berezirik ez, nik ez bait ditut jainko bezela ikusten, pare bat parranda beraiekin egin orduko gizon eta lagun bezela ikusten dituzu.

**- Andoni Egaña txapeldun.**

- Askok poztu nintzen, merezi zuen. Ez litzateke justua izango Igandean egun txar bat izan eta txapela atera ez balu. Azken urteotan bere bertso mailak eta bertsolaritzari egin dion ekarpenak merezi zuen hainbeste.

**Izaskun Elizburu**



# Urtebete eta gero, aurrera segitzeko gogoaz

45. zenbakia da eskuartean daukazu hau. Estutasun, izerdi eta lanordu askoren ondoren lortu du BARRENEk lehen urtea betetzea. Datozen orrialde hauetan urtebeteko lanari buruzko zuon iritzia jakin nahi izan dugu, eta kritikak merezi baditugu, horiek ere, jaso. BARRENEk, aldizkaria astero astero gauzatzen lagundu duzuen guztioi Gabonak zoriondu eta iragan dena baino urte emankor eta zoriontsuagoa opa nahi dizue.



Duela urtebete aurkeztu genuen 0. alea



Dagoeneko 45 ale kaleratu ditugu.



## Urtebete pasa ondoren, no



elgoiBARREN aldizkariak gure txoko maitean nabaria zen hutsunea betetzen du. Berau egiten duen lan taldeari ezin zaio ukatu lanerako gogoia eta grina. Astero, elgoibartarron nahiak asetzen saiatzen dira. Kirola, kultura, aisialdia, arazo sozialak eta abar kazetalarizpide zuzenaz idazten dituzte. Euskaraz oso osorik argitaratzea ere funtsezkoa da gure ustetan. Ilusioz beterik jaioten, indarrez hazi, eta heldutasunera arrakastaz hel dadin opa diogu; hori lortuz gero, irakurle elgoibartarrak modu egokian zerbitzatzea lortuko baitute.

**EUSKO ALKARTASUNAKO BATZORDE MUNIZIPALA**



BARRENek urtebete egin du eta bertan atera diren artikuluei buruzko balantzeari eta herriari begira duen funtzionamenduari buruz hitz egin nahi dugu.

Elgoibarko PSE-EEK, lan handia egiten ari dela iritzi dio, maila kulturalen, kirolean, informazio mailan, BARRENen etab. gauzarik garrantzitsuenak, hainbat gazteren borondatezko lana da astero astero gure etxeetara doan heldu eta irakur dezagun. Pentsatzen dugu zenbait artikuluek ez direla izan guztiz egokiak, baina arazo hau gainditu ondoren, badakigu eta ulertzen dugu BARREN irekia, disziplinatua eta oso interesgarria dela. PSE-EEren desioa lanean jarraitu eta urte asko bete dezazuela da. Horregatik elkarte honek dakizuen bezala lanean jarrai dezazuen animatzen zaituzte.

**ELGOIBARKO BATZORDE LOKALA**



1993. urtea, dudarik gabe urte gogorra izan da elgoibartar guztiontzat. Krisiak gogor eragin gaitu gu guztiok. Hori bai, garai hain berezi honetan, ez litzateke justua izango ez gogoratzea gure herrian martxan jarri diren proiektu guztiak. Proiektuon helburua elgoibartar guztiak zerbitzatzea baino ez da izan.

Horregatik, eta denon artean oraina hobetzea lor dezagun, herri honen alde, gure herriaren alde, lan egitera animatu nahi zaituztegu.

Urte berri on

**EAJKO ELGOIBARKO URI BURU BATZARRA**



**HERRI BATASUNA**

Iazko Gabonek oparirik ederrena ekarri ziguten: elgoiBARREN. Elgoibarren eta elgoibartarrentzako egindako euskarazko astekaria. Urtebete pasa da. Proiektua zena gauzatu eta gorpuztu egin

da. Elgoibartarrok astero astero ikusi ahal izan dugu euskarazko prentsa posible dela. Posible izatetik BARREN beharrezko izatera pasatu da ostiralero gure etxeetan.

Zoriontzeko unea da, beraz. Zoriondu lehendabizi BARREN proiektua egin duten guztiak, langileak eta orohar Elgoibarko herria, aldizkaria irakurtzen, publizitatea jartzen, proiektua finkatzen lagundu dutelako. Baina aurrera begiratzeko ordua ere bada. 1994rako ere BARREN proiektuak jarraipena behar du izan. Aurten izan dituen baino baldintza hobetagoekin. Guk horren aldeko apustua egiten dugu.

**HERRI BATASUNA**



BARRENek hiritarren interesa lortzean zuela zailtasunik handiena esanaz bukatzen nuen

orain dela urtebete idatzitako kolaborazio hura, eta gure ustez, froga hau erraz gainditu duela esan daiteke.

Normalean, lerro bat euskaraz irakurriko ez lukeen jende askok eta askok, BARREN aurretik atzeraino irakurtzen duen susmoa daukagu, eta hau pausu ikaragarria da euskararen normalizazioan.

Inguruko gaiak, ezagunak zaizkigun kontuak euskaraz irakurtzen hasten bagara, ohiturak aldatu eta aurrerabidea zabaltzen ari gara. Beraz, gaur, BARRENek sortu duen interesa aprobeztatzera noa beste ohitura bat aldatzea eskatzeko: lagun artean, lantegian, bikotean... hau da, gure iguruan erdaraz egiteko ohitura aldatzea, bestela ondorengo belaunaldikoek (generaziokoek) euskara ikasiko dute baina ez dute hitz egingo.

**EUE**



## la ikusten duzu BARREN?



**IMMA MUGERZA**  
23 urte, langabetua

Neretzako ondo dao. Helburu haundixekin hasi zan, asko eskeintzen zaban eta nere ustez lortu du mantentzia. Zeozer gehitzekotan, ingurugiroari buruzko zerbait.



**BEGOÑA GABILONDO**  
54 urte, etxekoandrea

Herriak oso ondo hartu dau. Klase guztietako jendeak onartu du eta nere ustez oso irekia da. Alde txarrrik? Horrela, bapatean, ez diot ikusten.



**JULIAN SEGUNDO**  
19 urte, ikaslea

Ondo dagoela iruditzen zait. Herriko jendea agertzen da eta hori oso interesgarria da. Faltan botatzen dut futbitoa gehiago ez agertzea.



**IZASKUN TABIRA**  
24 urte, umezaina

Asko gustatzen zait. Euskaltegian nago eta horrela praktikatu egiten dut, eta nire mailaz konaturatzen naiz. Dagoen bezala ondo dago.



**PRIMITIVO MARTINEZ**  
62 urte, jubilatua

Astero irakurtzen dut, dena. Aldatu? Altzolari buruz gehiago sartuko nuke eta Mendarori buruz ere bai. Gure auzuak gehiago ikutu behar dira.



**NEREA ELKORO-IRIBERE**  
20 urte, ikaslea

Lehenengo ikusten dotena argazkixak dira eta gero zeozer interesatzen bajata irakurri egiten dot. Gazteei buruz zerbait gehixago balego, hobe.



**ANGEL QUINTANA**  
10 urte, ikaslea

Neri asko gustatzen zait. Gehixen irakurtzen dudana atala kirola da. Dena ondo dauala iruditzen zait eta ez naban ezer aldatuko.



**FERNANDO PRIETO**  
32 urte, postaria

Ni kanpotarra naiz eta hizkuntzaren arazoarengatik ez dut irakurtzen, baina lankideei entzun didan komentarioengatik, oso ondo dagoela jakin dut.

- Kontabilitate  
- Lan  
- Fiskal



**URKIDI**  
**AHOLKULARITZA**  
**ASEGUROAK**

Kalamua 12  
ELGOIBAR  
Tel-Fax:  
74 18 91

**IRIONDO Taberna**

**Gabon zoriontsuak!**

Pedro Muguruza 2. Elgoibar



# BARREN Sariak 93



Gabon egunean, **BARREN**ek urtebete egiten du. Ospatzeko, **BARREN** sarien lehen edizioa antolatu da. Epaimahai kualifikatu batek sariak nori egokitu erabaki du. **BARREN**en eguneroko lanean gabiltzanok, zuen jarrera paregabea eskertzea nahi dugu. **BARREN** sariak astekarian kolaboratzen duzuen guztiok biltzeko aitzakia izan nahi dute.

Kolaboratzaile guztiei eskerrak eman nahi badizkiegu ere, ezin denoi saria eman. Horregatik, urtero antolatuko dugun sariketa honek lagun arteko bilkura nahi du izan eta ez zuen arteko lehiarako arrazoi.

Hona hemen, beraz, 1993. urteko **BARREN** sarien zerrenda:

Kolaborazio arrakastatsuenak	KOKOE
Erretratu zahar bereziak	JOSEFINA IRUSTA (Uholdeak. 35. zbk.)
Arrazoiak erdibanako artikulu arrazoituena	JAVIER OÑEDERRA (Aparkalekuak. 41.zbk.)
Elkarteetatik bueltan, urteko elkarte aipagarrienak	C.D. ELGOIBAR MORKAIKO M. E. EGO-TOKI
Publizitate egokiena egin dutenak	EIBAR MOTOR S.A ARTEGI
Erakunde laguntzailea	ELGOIBARKO UDALA
BARREN sari berezia kanpoko pertsonaiari	MARI KARMEN GARMENDIA



*Elgoibarko Udalak Jai Zoriontsuak  
opa dizkizue herritar guztioi.*

*Urte zaharra  
ondo bukatu  
eta Berria  
hobeto hasi.*



**ELGOIBARKO UDALA**



*"Eskolak bilduko du  
euskal sorkaria,  
heziketa on baten  
giza ataria.  
Olentzero, ekarri  
nahi dugun saria,  
Elgoibarrek merezi  
duen oparia."*



**INTERIORES**

**SUKALDEAK**

Errosario, 15 behea. ELGOIBAR  
TEL: 74 40 55 - 74 40 19





# Olentzero

- **Olentzero, inoiz jubilatuko al zara?** ▶ 65 urteak aspaldi pasa nituen eta jubilatatu gabe nago. Seguraski, oraindik Olentzero denbora askorako edukiko duzue.
- **Zer moduzko erlazioa duzu ekialdeko erregeekin?** ▶ Nahiko ona. Ni 24an irteten naiz eta eurak urtarrilaren 6aren bezperan. Gure arteko erlazioa oso ona da.
- **Ikatza, ume gaiztoei?** ▶ Gaizki portatu direnei bai, bestela ez.
- **Nola portatu dira Elgoibarko umeak aurten?**  
▶ Denetarik dago. Batzuk ondo, besteak gaizki; herri denetan bezala, denetarik izan da.
- **Eta jende nagusia?** ▶ Berdin.
- **Hamar txerri gazterekin ez al zara asetzen?** ▶ Hori abestiak dioena da. Egia esan, batekin ere nahikoa det.
- **Gabonak aparte, zer egiten duzu urteko beste garaietan?** ▶ Mendira joan eta, abesti ezagunak dioen bezala, ikatza atera.
- **Gaur egun modan dago erretzeari lagatzea. Pipa inoiz utziko al duzu?** ▶ Ez. Hori ezinezkoa da.
- **24ko gaua lan gaua da zuretzat, ezta?** ▶ Bai. Denek jai izaten dute eta nik eta bizarzurik lan egin behar izaten dugu.
- **Gustatzen al zaizu Elgoibar?** ▶ Nahiko herri zatarra da berez, baina ez dago gaizki ere.
- **Zein da zure ustez Gabonetan egin daitekeen erregalurik onena?** ▶ Askok daude onak.
- **Egongo dira eskatu duten erregalua jasoko ez duten zenbait ume. Zer esan behar diezu?** ▶ Lasai egoteko. Esperantza ez da galdu behar eta igual datorren urtean izango dute eurek behar dutena.
- **Ardoa ala ura?** ▶ Ardoa.
- **BARRENe koentzat ze erregalu ekarriko diguzu?**  
▶ 94rako urte ona eta Udaletxetik presupuesto gehiago.



Edu Sanz

*Elgoibarko PSE-EE k  
Gabon jai zoriontsuak opa dizkizue  
herritar guztiei.  
Urtea ondo bukatu  
eta berria hobeto hasi!!*





## Gerardo Arriola Sarasketa "Pitxirri" Pilotari eta pilotagile

● 1889ko apirilaren 23an jaioa. 19 urte zituenetik pilotan jokatzen jardun zuen, 44 urte bete zituen arte.

● Garaiko pilotari gehienen aurka jokatu zuen: Atano III.ena, Errasti, Txaparta, Artazo, Estarta, Mondragones, Baltasar, Zabala, Zapaterito... Urte askotan Mondragones-en bikote izan zen. Atano III.ena gaztea zenean Arriolak esku bakar batekin jokatzen zuen bere aurka. Gero, Atano III.a gandi ezineko lehiakide izan zuen.

● Anaia Vicente eta aita bezala, pilotan jokatzeari laga zionean, Elgoibarko frontoiko "baratero" edo "canhero" izan zen. Horrez gain, pilota bat edo beste aholkatzen zien jokalariei eta bere eskuz pilotak egiten zituen.

● Ezaguna izan zen aitarena zen txakurra, "Blanco". Pilota errekarara erortzen zenean, txakurra, laster batean, zubira joan eta errekarara salto egiten zuen pilota berreskuratzeko. Txanala bat zuen, eta haga batez lagunduta errekan behera pilota bila ibiltzen zen.

● Etxean zuen lantegi txikian pilotak egiten zituen herriko frontoian jokatzeko. Ez zitzaion gustatzen, ordea, kanpotarrei saltzea. Batzutan frontoia eta pilota alokatu egiten zituen. 30. hamarkadan txakur haundi bat balio zuen alogerak.

● 1979. urtean hil zen, 90 urte zituela.



AZKUE

### ARMUETA



Isabel  
Ormazabal

**Harategia Urdaitegia**

*Gabon zoriontsuak opa  
dizkizue Elgoibartarroi!*

San Bartolome, 16. Tel: 74 06 40

*Gudego*

LURRINDEGIA

San Frantzisko, 2. Tel. 74 02 99



Salvador Celaya

ITURGINTZA

BILTEGI ETA BAINUGINTZA  
BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK

Errosario 22. Tel: 74 04 94



# BERTSO JAIALDIA

## Elgoibarren

EGUNA: Abenduaren 30a

TOKIA: Olaizaga Kiroldgia

ORDUA: Gaueko 10etan



**Andoni Egaña**



**Sebastian Lizaso**



**Maialen Lujanbio**



**German Meabebasterretxea**



**Iñaki Murua**



**Angel Mari Peñagarikano**

**GAI JARTZAILE:** Elgoibarko Izarra Bertso Eskola

**AURKEZLEAK:** Jon Barandiaran eta Izaskun Elizburu

DEKORAZIOA:

MIMOX  
LORA DENDA



ANTOLATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
KULTUR ELKARTEA



LAGUNTZAILEAK:

ELGOIBARKO UDALA  
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA





Euskadiko Sindikatua, Euskadi eta Euskararen Alde

ERROSARIO KALEA 25. Tel: 74 42 78 - 74 42 79

**ostarku**

Santa ana, 5 - Tel. 74 06 46

Argazki errebelatua  
ordu 1ean  
Erreportaiak  
Ezkontzak  
Estudio argazkiak  
Jaunartzeak  
Karnetak  
Argazki materiala

**BETI ARGi, S. L.**

Erregalu artikulua

Instalazio orokorrak

Sukaldeko tresneria

Errosario 6, behea. ☎ 74 16 44

**garaje**

**ASTIGARRAGA**

San Frantzisko, 55. Tel. 74 01 86

- \* Ziklomotore eta motorren konponketa eta salmenta
- \* Jonsered eta Husqvarna motoserrak
- \* Desbrozadorak
- \* Neumatikoak
- \* Bizikletak

● *Inazio Bereziartua Musikeskola* ●

*Gabon Jai Zoriontsuak opa dizkizue Elgoibartar guztioi.  
Urte Zaharra ondo amaitu eta desiorik hoberenak 1994rako.*



*Aranburu*  *Bitxidenda* San Frantzisko 26. ☎ 74 25 35

**Gabonetako eskaintza berezia**

**Urrezko bi erloju zozketatuko ditugu!**

Zatoz eta 1.000 pezetako gastuagatik zu ere zozketan sartuko zara.  
Zozketa 1994ko urtarrilaren 5an izango da dendan.

*Zorionak!*



# 1993ko gazte protagonistak



★ **CARMEN PEREA**  
Gipuzkoako Atletismo Txapelketan urrezko domina 1500 m-tan. 92-93ean Espainiako 3.a 800m-tan. 93-94an Gipuzkoako kros txapelduna



★ **EDUARDO ARRILLAGA**  
Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen Sustatu argazki lehiaketan 2. saria 1992an eta lehenengoa 1993an.



★ **JAVIER ARRIOLA**  
Euskadiko Harrijasotzaile Txapelketan bigarren postua. 100 kiloko zilindroarekin 108 jasoaldi, ordurarte 103 jasoalditan zegoen marka hobetu zuen.



★ **JOSEBA ETXEBERRIA**  
Espainiako, Euskadiko eta Gipuzkoako futbol selekzioan dago, 17 urtetik beherako kategorian. Errealeko jubenilen taldean ere jokatzen du



★ **ANGEL MARI ALBIZU**  
Euskadiko Judo txapelduna 86-95 pisuan. Urrezko domina Nazioarteko Judo Txapelketan.



★ **GUSTAVO BARRENETXEA**  
Sevillako Orkestra Sinfonikoan dago tronpa jotzen.

- ★ **Josu Merino:** Deba Beheko I.Eskalada Txapelketako irabazlea.
- ★ **Agurtzane Arriola:** Gipuzkoako Atletismo Txapelketan urrezko domina 200 eta 400 m-tan.
- ★ **Mikel Kornejo:** Portugaleteko Komiki Lehiaketan lehenengo saria.
- ★ **Alex Galarraga:** Txirrindularia, Euskadiko txapelduna kadeteetan.
- ★ **Yolanda Mateos:** Euskadiko Futbol Selektioko kidea.
- ★ **Javier Quintano eta Anjel Nova:** Bizkaiko Sanbo Txapelketan urrezko dominak junior mailan.
- ★ **Alaitz Bastida:** Bizkaiko Sanbo Txapelketan urrezko dominak junior eta senior mailan.
- ★ **Jon Gonzalez:** Automodelismoan, Euskadiko jubenileko eta Errioxako Nagusien mailako txapelduna.
- ★ **Mikel Elkoro Iribe:** Errealeko jubenilen futbol taldean jokatzen du.
- ★ **Kokoteraino** taldeak bere lehendabiziko maketa grabatu zuen.
- ★ **Iban Urizar:** Donostiako Musika Bandan tronpeta jotzen du.
- ★ **Ana Gonzalez:** Judoan gerriko beltza lortu duen lehen emakume elgoibartarra.
- ★ **Ainhoa Lodoso:** Emakunde 93 sarietan kirol sailean emakumeei emaniko tratamenduagatik ohorezko aipamena.
- ★ **Ehun Kilo:** Beraien lehenengo diska kaleratu dute: "Euli artian".
- ★ **Izaskun Elizburu:** 1993ko Etxegiña Bertso-paper Lehiaketako Txapelduna.



## EROSKI

*Ondo pasa Gabon jaiak!!*

*Urkiola*

TABERNA

Zorionak eta Urte Berri On!



## MOTZAK

### Txirrindulari zuzendari ikastaroa

Deba Garaiko Udaletako eta Kirol eta Euskara zerbitzuek txirrindulari zuzendari ikastaroa antolatu dute urtarrilaren 15, 22 eta 29rako eta otsailaren 12rako. Ikastaroa goizez eta arratsaldean izango da Bergarako Lanbide Hezkuntza eskolan. Izena emateko epea urtarrilaren 11ean amaituko da eta, horretarako eta informazio gehiago eskuratzeko Bergara, Oñati, Arrasate eta Aretxabaletako Kirol Zerbitzu eta Kiroldegietara jo edota 76 59 57/76 52 80 telefonoetara deitu.

### Carmen Perea Gipuzkoako kros txapeldun

Astebukaera honetan Gipuzkoako Kros txapelketak korritu dituzte Ego-Tokiko korrikalariak eta emaitzak oso onak izan dira. Carmen Perea Gipuzkoako kros txapelduna da emakumezkoen junior mailan. Lehen 2000 metroak taldean korritu zituen Carmenek; abiadura arindu eta 15 metrotako alde atera zien lehiakideei, metro horiek eman zioten abantailaz helmugaratu zelarik. Emakumezkoen senior eta promesas kategorian Isabel Ruiz eta Argiñe Gabilondok korritu zuten. Lehenengoa 15. postuan heldu zen eta bigarrena 8. postuan. Gizonezkoen atalean, Alberto Revuelta erretiratu egin zen lasterketaren erdia egin zuenean hankako minak eraginda. Luis Santamariak, berriz, 25. postuan bukatu zuen lasterketa.



Ramon Mujika:

### "Elgoibartarrak oso kirolzaleak gara"

■ **Zein da kirol teknikariaren lana?** - Instalazioen eraikuntzak eta berrikuntzak proposatzea eta gainbegiratzea. Kluben beharrak aztertu eta subentzioak bideratzea. Ekin-tzak antolatzea eta Mintxetaren zuzendaritza eramatea. Azken batean, kirola elgoibartarrei hurbiltzea.

■ **Kirolzaleak al gara elgoibartarrak?** - Oso kirolzaleak. Beste herrietako kirol teknikariak harrututa geratzen dira gure herrian kirolak mugitzen duen pertsona kopuru portzentaia aztertzerakoan. Honen oinarria eskolarteko jokuetan dago. Udal kirol kanpainetan, eskolarteko jokuetan eta klubengandik inguruan jendetza mugitzen da.

■ **Kirol mailan zer falta zaigu Elgoibarren?** - Instalakuntza mailan oso ondo hornituta gaude. Pribilegiatuak garela esan dezakegu, batez ere, Mintxeta egin denetik. Espero dugu herritarrek pozik egotea egin dugunarekin. Falta zaiguna entrenatzaileen kualifikazioa eta teknifikazioa da. Honek ez du esan nahi dauzkagun entrenatzaileak txarrak direnik. Beraien lana gorai-patzekoa da, baina kualifikazioa behar dute. Kualifikazio honek kostu bat izango du eta haur eta gazteek hartu beharko dute bere gain kostu hori.



■ **Nolakoa izan da Udal Kirol Zerbitzuak antolatu dituen ekintzen harrera?** - Oso ona. Partaide-tza bi ekintzekin neurtzen dugu, bata udako kanpainarekin eta bestea, Gabonetako kuadrila arteko txapelketarekin. Urtean zehar ere, eskolarteko jokuak antolatzen dira eta partaidetza oso handia da. Udako kanpainan gero eta jende gehiagok parte hartzen du, emakumezkoak ere asko, eta adin guztietako jendeak. Kuadrila arteko txapelketan ere, lehenengo urtean 16 kuadrilak parte hartu zuen, iaz 23 izan ziren eta aurten 26 dira.

■ **Urte berrirako gomendiorik?** - Nork bere osasuna aprezia dezala eta pozik badago bere horretan mantentzen saiatzeko. Hobetu nahi duenari esan, kirola horretarako bide bat dela beste asko egon daitezkeen bezala.

26 urte. Kirolik osasuntsuena neurri egokian egiten dena dela uste du. Bere kirol faboritua futbola da eta lesiorik ez edukitzeko hiru gomendio: Estiramenduak egin, egoki entrenatu eta ura ugari edan.



**ELGOIBARKO UGT-k**

JAI ZORIONTSUAK opa dizkizue langile eta herritar guztioi.

Ea 1994 urteak ZORIONA eta LAN GEHIAGO ekartzen digun!

Urasandi 14 behea Tel: 74 36 45

*Ametza*

*Urte Zaharra ondo bukatu eta Berrira hobeto hasi!*

**San Inazio, 2 74 27 22 ELGOIBAR**



## 26 talde Gabonetako III. kuadrila txapelketan

**Hilaren 27tik 31ra bitartean eta Udal Kirol Zerbitzuak antolatuta, herriko kuadrilek beren indarrak neurtzeko aukera izango dute Gabonetako kuadrilen arteko III. txapelketan. Aurten lehen aldiz, neska kuadrila batek hartuko du parte.**

**A**urten iaz baino hiru kuadrila gehiago izango dira Gabonetako txapelketan, 26 talde hain zuzen. Guztira 348 gazte arituko dira 5 kirol iharduera ezberdinetan. Kuadrila guztiek kirol guztietan jardun beharko dute eta honoko hauek izango dira parte hartu beharko duten kirolak: Areto futbola, pala, saskibaloia, krosa eta kronoeskalada. Aurtengo txapelketako berrikuntza, bizikleta proba edo kronoeskalada izango da. Taldeka burutu beharko da, talde bakoitzeko 3 kidek korritu beharko dutelarik.

Giro edo ambiente politena, berriz, Plaza handiko krosean eta Kiroldegian burutzen diren probetan sortzen da. Saskibaloia eta areto futbola arratsaldeko Setan hasi eta goizaldera arte luzatzen dira. Iaz, bi kirol hauen inguruan jendetza handia bildu eta sekulako giro sortu omen zen goizalde partera.



■ ■ Juve Mekanika taldea. Iazko edizioko txapeliduna.

Kirol guztietan aritu ondoren, kirol bakoitzeko txapelidunek garaikurra jasoko dute. Punturik gehien jasotzen dituen kuadrila txapelketaren irabazlea izango da eta lehen

postuagatik garaikurra eta 50.000 pezeta jasoko ditu. Joan den urtean Juve Mekanika izeneko kuadrila izan zen txapelketaren garaile.

EGUNA KIROLA	TOKIA	ORDUA
<b>27</b>	Futbol sala	Kiroldegia 17,00
	Pala	Ikastola 17,00
<b>28</b>	Saskibaloia	Kiroldegia 17,00
<b>29</b>	Kros erreleboak	Plaza handia 19,00
<b>30</b>	Kronoeskalada	Sigmako zubia 19,00
<b>31</b>	Saskibaloia (Finala)	Kiroldegia 12,00
	Areto Futbola (Finala)	Kiroldegia 13,00



**MAPFRE**  
ASEGURUAK  
*Mari Luz Rojo*

Mota guztietako aseguruak zure esku

San Frantzisko, 34 Telf: 74 05 82 - 74 14 04

## DAMKAR'T

**Ileapaindegi eta estetika eskola**

*Zorionak eta Urte Berri On!*

Bittor Sarasketa 7-3. Tel: 12 15 18 EIBAR



INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

ARRASATE ☎ 77 13 02  
BERGARA ☎ 76 21 80  
ELGOIBAR ☎ 74 42 83

**LAGUNTZA OFIZIALAK ETXEBIZITZAK EROSTEKO:**

Erabat dohainik eta konpromezurik gabe, DEBA GARAI Aseguruak ofizian jaso dezakezun dirulaguntzetaz informatuko zaitu.

**DEBA GARAIAREN ZERBITZUAK:**

TASAZIOAK, SALEROSKETAN GESTIO OROKORRA, FISKAL AHOLKULARITZA, FINANTZAKETA, (LAGUNTZA OFIZIALAK, KOMUNITATEAK).

# Biak

**ileapaindegia**

San Inazio 4, Tel. 74 27 25



## KIROL AGENDA

### PILOTA Morkaikupe frontoian (San Migel)

ABENDUAK 26 IGANDEA

12,30: Joxin eta Gabilondo - Beraza eta Ramirez

### FUTBOLA Mintxetan

ABENDUAK 31 OSTIRALA

16,30: Haundi - Valmaseda

### ARETO FUTBOLA Kiroldegian

URTARRILAK 5 ASTEAZKENA

"Gabonetako Elgoibar herria txapelketa"

22,00: Elgoibar F.S. (1. maila), Elgoibar F.S. (2. maila) eta Astilleru taldeen arteko fêhia.

### FUTBITOA Urasandin

URTARRILAK 6 OSTEAGUNA

10,00: G. Garcia - Lucky Luke Aldavas - Ametsa

11,00: Bar Roke - Chelsea D. Kalimotxo - King Kong

12,00: Lagun Toki - Txirristaka Univ. Chile - Gorribeltz

### KUADRILEN ARTEKO TXAPELKETA

ABENDUAK 29 ASTEAZKENA

19,00: Krosa (Plaza handia)

ABENDUAK 30 ASTEAZKENA

19,00: Kronoeskalada (Sigmako Zubia)

ABENDUAK 31 OSTIRALA

12,00: Saskibaloia (Finala) (Kiroldegian)

13,00: Areto futbola (Finala) (Kiroldegian)

## EMAITZAK

### ESKUBALOIA

Elgoibar 13 - Jauja 14 (Neskak)

Tolosa 31 - Elgoibar 25 (Kadeteak)

Beasain 10 - Elgoibar 27 (Jubenilak)

### FUTBOLA

Elgoibar K.E. 4 - Aloñamendi 1 (Kadeteak)

Hernani 2 - Haundi 0

Urki 0 - Elgoibar K.E. 3 (2. errejionala)

Ordizia 1 - Elgoibar K.E. 5 (Jubenilak)

Almen 3 - Elgoibar K.E. 0 (Infantilak)

Alde Zaharra 7 - Elgoibar K.E. 0 (Neskak)

### ARETO FUTBOLA

Elgoibar A.F.T. 0 - Pub Kabitxo 1

Ceramicas Suarez 2 - Elgoibar A.F.T. 4

### USAKUME TIRAKETA

Sailkapena:

1- Jose Luis Hernaez

2- Rafael De la Cruz

3- Jose M. De la Cruz

4- Martin Garagarza

5- Juan Iñiguez



## ALUVITEL

*Erakusketa zuzenbide  
berri honetan:*

Santa Ana 3  
Tel. 74 36 34

- " Rotura de Puente  
Termico" dun leihoak  
edozein koloretan

- Bainu manparak

- Ofizinak banatzeko  
manparak

- Aluminio eta  
PVCzko pertsianak

## Katebi

Liburudenda

Aldizkariak

Eskolako  
materiala eta  
Liburuak

Opariak

*Zorionak!*

San Bartolome, 5  
☎ 74 04 98





## GOZOTEGIA

*Eskulanean saiatzen gara*

*Pastelak      Tartak*  
*Izozkiak      Bonboiak*

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

# GARAY



**HARATEGIA**

**URDAITEGIA**

San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92



## Eguneroko errealdiak

*Lorionak eta Urte Berri On!*



San Frantzisko 17. Tel. 74 05 33-36 39

# ARAURI

*Usaindegia*

**Zorionak  
eta  
Urte Berri On!**

San Bartolome, 6 <sup>º</sup> 74 17 89 - ELGOIBAR

*okindegia eta gozotegia*



*Ondo pasa Gabonak!*

San Frantzisko, 4- Tel. 74 07 35  
ELGOIBAR



## IPINTZA Pinturak

**DEKORATZAILEA**

- Pintura eta paperen salmenta
- Mocketak eta sintasolak jartzen ditugu
- Zoru eta ormen apaindurak
- kortinak saldu eta ipini
- kortinen erakusketa Errosario kaleko 7an

Foruen Plaza 4. Tel.: 74 04 40



# IBAI Gimnasioa

## IRAKASLE TALDEA ETA KIROLEKINTZAK

### Manu Mora

- ▲ KIROL HEZKUNTZAN LIZENTZIATUA
- ▲ JUDOKO ENTRENATZAILE NAZIONALA (4. DAN)
- ▲ ATLETISMOKO MONITORE NAZIONALA
- ▲ ESKUBALOIKO ENTRENATZAILE ERREGIONALA



**JUDO**  
**MUSKULAZIOA**  
**TAEKWONDOA**  
**GIMNASIA**  
**AEROBIC**  
**HAURDUNENTZAKO GIMNASIA**



### Jose Antonio Hidalgo

- ▲ MUSKULAZIO MONITOREA
- ▲ ESKUBALOIKO ENTRENATZAILE NAZIONALA
- ▲ HEZKUNTZA FISIKOAN MONITOREA
- ▲ ATLETISMOKO MONITORE NAZIONALA



### Olga Garcia

- ▲ AEROBIC MONITOREA (INTESA)
- ▲ ESTRECHIN, STEP ETA AEROBIK ESPEZIALISTA
- ▲ HEZKUNTZA FISIKOAN MONITOREA



### Oscar Novo

- ▲ TAEKWONDOKO ENTRENATZAILE ERREGIONALA (2. DAN)



### Charo Rojo

- ▲ EMAGINA
- ▲ ERDITZEAREN PSIKOPROFILAXIAN DIPLOMATUA (HAURDUNENTZAKO GIMNASIA)



# KENSINGTON

Ingelesa eta frantzesaz gain,  
orain, eskaeren arabera **ALEMANA** ere bai.

*Gabon  
Zoriontsuak igaro  
eta  
Urte Berri On!*



**G** GIPUZKOAKO HIZKUNTZ IRAKASLE  
ELKARTEKO BAZKIDE

P. Muguruza 8. ELGOIBAR ☎ 74 02 36





## Elgoibarko Izarra: euskararen alde lanean

**1963. urtean gure herriko euskaltzaleen munduak izar berria ikusi zuen jaiotzen. Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen estatutuek dioten bezala, ume, gazte eta nagusien arteko familia handi bat sortzeko asmoa zuen. Gaurdaino luzatu da haren bizitza, beti ere, euskara eta euskal kultura indartuz.**

**H**iru izan ziren Elgoibarko Izarra elkartearen sorreraren bultzatzaile: Felix Etxeberria, Sabin Osoro eta Jesus Larrañaga. Haseratik, herritarren aldetik, harrera oso ona izan zuen: 1963. urtean bertan, 1.400 bazkide bildu zituen elkarteak. Garaiko elkarte gehienek bezalaxe, kultur elkarte gisa egituratu zen eta estatutuak onartu zituzten. Orduan estatutuetan euskaldunez osaturik egongo zela jarterik ez zegoen baina elkartearen helburua euskara eta euskal kultura zuspertzea zen. Hiru lantalde osatu ziren: hezkuntza eta irakaskuntza, artea eta ohiturak eta aisialdia eta jolasak.

Urte berean, egun Elgoibarko Ikastola dena sortu zen Elkartearen gidaritzapean. 1.400 bazkide biltzea ere, ez zen lorpen makala izan. Honetaz gain, helduen alfabetatze eta euskalduntzerako gau-eskolak antolatu zituzten, euskal dantza, txistulari eskola, solfeoa,



■ ■ Hauek dira elkartearen berrindartze fasean parte hartu duten etariko batzuk.

ingeles eta ballet ikastaroak, Aubixaren eraberritzea etab.

Gogor jaio zen elkarte ahultzen joan zen, eta urtean bizpahiru ekintza burutzera mugato zen. Berrindartzea 1990. urtean gertatu zen. Urteko Batzar Orokorrean desagertzeko aukera aztertu zen. Hori ezinezkoa zela ikusita, lau bat pertsona lanean hasi eta berrindartze prozesuari hasera eman zioten. Helburua, bakarra: euskararen normalizazioa. Helburua lortzeko, euskal giroa eta kultura indartzeari ekin behar zitzaioela ikusi zuten. Fase berrian Udalarekiko harremanak estutzen dira, herriaren babes soziala lortzen da, bizpahiru urtetan azpiegitura material zein pertsonal serio bat eskuratzen da eta azkenik, 1992.eko abenduan BARREN astekaria argitaratuko

da elkartearen babesean.

Gaur egun, Elgoibarko Izarrak 540 bazkide ditu eta urtean zehar hainbat ekintza antolatzen ditu: "Ez dok amaitu!", "Gabonak Bertsotan", "Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketak", umeen Olentzero,... eta beste elkarte guztiek bezala, eskatzen zaionean bere laguntza luzatzen du.

### FITXA TEKNIKOA

**Sorrera urtea:** 1963

**Bazkide kopurua:** 540

**Presidentea:** Ales Arrieta

**Iharduera:** Euskararen normalizazioa eta euskal kulturaren zuspertzea

**Lokala:** Ubitarte 4 behea



## "EMAN GOGOR EUSKARARI"

DEBABE

UDAL

EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA



NAFARROA ENPARANTZA, 2

☎ 74 27 31

20870-ELGOIBAR

*Gabon Zoriontsuak eta Urte Berri On!*

Mari  
Jose

GOZO-TOKIA

San inazio, 1. ☎ 74 16 93





**ERREMINTA  
MAKINA  
INSTITUTUA**

## ETENGABEKO FORMAZIO ETA ERREZIKLAIA PROGRAMA

Egitasmo honen baitan, teknikarien kualifikazio maila hobetu nahian, I.M.H.ak 1994 urteko 2. sei hilabeteetarako jarraian aipatzen diren kurtsoak jarriko ditu martxan:

### PRODUKZIOA

■ C.N.C. tornoen erabilera eta programazioa I eta II mailak .....	(94. 05. 10)	160
■ Fresadora eta C.N.C. Mekanizatu zentruen erabilera-programazioa. (I. - II. maila) .....	(94. 01. 18)	160
■ Automata eta Komunikazioen integrazioa Zelula Flexibleen inguruan .....	(94. 04. 12)	90
■ Ordenagailuz Egindako Produkzio sistema eta Analisia. ....	(94. 06. 14)	70
■ CAM (Ordenagailuz Egindako Fabrikazioa) .....	(94. 02. 22)	90

### DIBUJO TEKNIKOA ETA DISEINUA

■ Planoen interpretazioa I eta II mailak .....	(94. 02. 08)	125
■ Makinen Osagaien Kalkulo, Diseinu eta Eraikuntza .....	(94. 02. 08)	135
■ Ordenagailuz Egindako Diseinua: Autocad V. 12 (I. eta II. maila) .....	(94. 01. 18)	140
■ Ordenagailuz Egindako Diseinua: ANVIL 5000 V.2.1.(I. eta II. maila) .....	(94. 05. 03)	125
■ Ordenagailuz Egindako Diseinua: ANVIL 1000 V.1.5. ....	(94. 06. 20)	70
■ Ardatzen nekerako kalkulua .....	(94. 06. 20)	35
■ Proiektuen aurkezpenarako Industri Diseinua .....	(94. 05. 17)	140
■ PC Microestazioa (CAD 2D eta 3D) .....	(94. 04. 12)	70

### AUTOMATIKA

■ Automata Programarriak .....	(94. 05. 10)	80
■ Neumatika eta Hidraulika .....	(94. 02. 15)	80
■ Mekanikoentzako Elektronika Industriala .....	(94. 04. 07)	80
■ Automatismo Elektrokoak .....	(94. 01. 24)	90

### METROLOGIA

■ Koordinadaz Neurtzeko Makinak: Oinarri eta Aplikazioak .....	(94. 06. 14)	60
■ Interferometria laser-eko Neurteta .....	(94. 03. 14)	46
■ Neurtzeko Tresna eta Ekipoak Metrologia Dimentsionalean .....	(94. 01. 24)	115
■ Ekipo Basikoaren Kalibrazioa Metrologia Dimentsionalean .....	(94. 05. 17)	60

### MATERIALA

■ Materiale Tradizionalen Ezagutza eta Kompositesen sarrera .....	(94. 04. 12)	115
■ Metalografia: Materialen ezagutza .....	(94. 05. 02)	105

### MANTENUA

■ C.N.C. Makina Herramintzen instalakuntza eta mantenua .....	(94. 03. 14)	80
---	--------------	----

## INFORMAZIOA:

**ERREMINTA MAKINA INSTITUTUA**  
Tel.74 41 32 Fax.73 41 53.  
San Roke Auzoa 1 ELGOIBAR



*Prestakuntza beti ere aurrez aurre izanik,*

*Gabon Zoriontsuak pasa eta*

*Urte Berri oparo eta on bat izan dezazuela !*



# II. Etxegiña Bertso-paper lehiaketa

**Giro ezin hobean egin zen joan den ostiralean, hilak 16, Nagusien II. Bertso Paper Lehiaketaren sari banaketa. Ekitaldian Xabier Euskitze eta German Meabebasterretxea bertsolariak izan ziren kantari. Ekitaldiari doinu egokia jarri zioten, bai jauna!**

**E**lgoibarko Izarra elkarteak antolatutako Nagusien II. Etxegiña Bertso-paper lehiaketaren irabazlea Izaskun Elizburu izan da. Lehiaketan parte hartu duten bertsolariek oso modan dagoen gai baten gainean jardun behar izan dute: "La ruta del bacalao". Izaskun Elizburuk txapela eta 30.000 pezetako saria jaso du idatzitako bertsoengatik. Lehiaketako bigarren saritua, iaz txapeldun izan zen Hasier Etxaniz izan da.



■ ■ Nagusien Etxegiña Bertso Paper lehiaketako partaideak.

Hasierrek 20.000 pezeta irabazi ditu eta hirugarren geratu den Joseba Gorosabelek 10.000 pezeta.

Bestetik, bertsozale guztiek zita bat izango dute datorren ostegunean, hilak 30, gaueko 10etan, Olaizaga Kiroldegian momentuko

bertsolari ezagunen saioa izango baita. Saioari Andoni Egañak, Sebastian Lizasok, Mailaen Lujanbiok, German Meabebasterretxeak, Iñaki Muruak eta Angel Mari Peñagarikanok jarriko diote puntua.

## **Honoko hauek dira Izaskun Elizbururen saritutako bertsoak: "LA RUTA DEL BACALAO"**

### **Doinua: Neskazaharrak eta apaizak (Xabier Amuriza)**

Aita eta ama larunbat gauzez  
butaka zapalduz goxo  
"Informe Semanal"-i so,  
dokumental bat omen zegoen  
interesgarria oso,  
izenburuak hala zioen  
ikusiak ez akaso,  
ez untzi eta ez itsaso  
"bat agindu ta bestea eman  
ez al da nahiko frakaso?"

Aizu aitatxo agerian da  
zerorren inozentzia,  
barkatu atrebentzia,  
bideo hartan ezin azaldu  
ez Ondarru ta ez Plentzia,  
baizik asfaltoz loturik dauden  
Madril eta Valentzia  
hona nere irrintzia:  
"bakalauaren" esanahian  
hor dago diferentzia. (bis)

Erritmo bizi, matxakoia da  
bakalauana zeharo,  
ezin sinesturik nago  
nola litekeen bi egun luzez  
zutik iraun brabo-brabo:  
Madrilgo "Funny"-n lehenengo zita  
Valentzian "Shock" geroago  
diskotekaren esklabo,  
asteburuan hauen oherik  
egin beharrik ez dago. (bis)

Dantzalekuko barra gainean  
hainbat pizgarri nahaste,  
inguruan hamar gazte  
tragoa honi, musua hari  
gorputzak sentituz aske,  
izerdi patsez tantoka dabiltz  
musika gogorren eske,  
ez al da nahiko desgaste?  
infernualdetik paradisura  
bada hainbeste kontraste. (bis)

Igande goiza, begiak bizi  
"festak jarrai dezan, arren!"  
gorputzean nahiko kemen,  
"Shock"-etik bueltan "Cadillac"-era  
sartzeko asmoa omen,  
burua laino, ametsak ero  
errebuelta dato r hemen!  
karriletik dira irten,  
arnasteari utzi diote  
garaia heldu baino lehen. (bis)

Bakalauaren ibilbidea  
gazteen dibertsioa,  
hori beren bertsioa,  
ostiral gauzez hasten da hauen  
jairarteko funtzioa:  
alkoholaz paso, extasia da  
hautzat salbazioa,  
crackaren sentsazioa,  
moda berriak ekarri digu  
gazteen defuntzioa. (bis)



# BERISTAIN

## EDARI BANATZAILEA

*Vina Nerea,  
Ixikileorako zure ardoa*

Iñaki ☎ 74 38 27



*Gabon zoriontsuak pasa  
eta Urte Berri on!!*



Elgoibarko Eusko Alkartasunak

**PAKEA eta ZORIONA**

opa dizue elgoibartar guztioi.



# Arnoate baserria

● Xoxote, Larraskanda, Gaintxipixa eta Urnabitza mendien magalean kokatua dago.

● Ate ondoan trapezio itxurako oina daukan harria dago, bertan elkartzen dira Bizkaia eta Gipuzkoa, bi probintzien arteko muga hor dago, beraz.

● “Uherva Deza” odol nahastuko neska eta haren seme Adrian, harriak markatzen duen muga izan ziren erbesteratuak, Gipuzkoara sekula ez itzultzeko aginduz.

● Julian Arrillaga “Arnobate” mediku ezaguna bertan jaio zen 1883an.

● Garai batean “Pazko-erdiko” erromeria ospatzen zen baserriaren inguruan. Mendaro, Markina, Mutriku, Elgorbar eta beste hainbat herri-tako jendea joaten zen. Festak gaue-



PENA-SANTIAGO

ko ordu txikietara arte irauten zuen soinuaren musika, edari eta dantza artean.

● Gizon eta emakume asko Arnoate baserriko parajeetara joaten ziren

elkar ikusi, hitzegiri, eta ezagutzera.

● Bidelapur ugari ibiltzen zen, bide haietatik pasatzen ziren erromes, merkatari eta bestelako ibiltariei xoxak kendu asmoz.

**KEMEN**  **Belardenda**

**MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN  
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA  
REFLEXOTERAPIA**

San Bartolome 25. Tel: 74 40 31



Andoni Gisasola  
**ALBAITEROA**

- Medicina orokorra
- Zirurgia
- Traumatologia
- Analiak
- Radiologia
- Txertoak
- Bainu antiparasitarioak
- Txakur ileapaindegia

k / Barrena 16 EIBAR Tel. 12 19 86



**JARRAI** egun hauetan denon etxean sartuko da.

**ATXIK MAKILA**

Palestinarrei, Quebectarrei, Irlandarrei **ZORIONAK**.  
Noizko euskaldunoi? Bidea negoziazioa da.

**ELCOIBARKO HERRI BATASUNA**



## 25 LARUNBATA

17,00 ZINEA

"Este chico es un demonio"

Sarrera: 150 pezeta

✓ Udaletxeko Biltzar aretoa

Antolatzailea: Ongarri zine kluba

19,30-22,15 ZINEA

"El fugitivo"

## 26 IGANDEA

18,30 ELIZ ABESBATZAREN  
KONTZERTUA

Zuzendaria: Laura Bilbao

✓ San Bartolome Elizan.

17,00 ZINEA

"Este chico es un demonio"

Sarrera: 150 pezeta

17,00 BIDEO EMANALDIA

"27 ordu"

Ondoren: Eztabaida

✓ Kimetz Elkartearen

Antolatzailea: Jarrai

19,30-22,15 ZINEA

"El fugitivo"

## 27 ASTELEHENA

11,30 KOMIKI IKASTAROA

Matrikula doan

Antolatzailea: KOKOE

✓ Santa Klarako eskolaurrean.

17,00 BIDEO EMANALDIA

"Thelma and Louise"

Ondoren: Eztabaida

✓ Kimetz Elkartearen

Antolatzailea: Jarrai

22,15 ZINEA

"El fugitivo"

## 28 ASTEARTEA

17,00 BIDEO EMANALDIA

"Alguien volo sobre el nido del cuco"

Ondoren: Eztabaida

✓ Kimetz Elkartearen

Antolatzailea: Jarrai

## 30 OSTEGUNA

08,00 MENDI TRABESIA

San Adrian-Aitzgorri-Arantzazu

✓ Irteerea: Sigmako zubia

Antolatzailea: Morkaiko M.E.

11,30 PAILAZOAK

"Takolo, Pirrux eta Porrotx"

✓ Kultur Etxean.

17,00 BIDEO EMANALDIA

"La fuga de Segovia"

Ondoren: Eztabaida

✓ Kimetz Elkartearen

Antolatzailea: Jarrai

22,00 BERTSO JAIALDIA

Bertsolariak: Egaña, Lizaso,

Lujanbio, Meababasterretxea,

Murueta eta Peñagarikano.

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

✓ Olaizaga kiroldegian.

## 31 OSTIRALA

09,00 GABON ZAHAR FERIA

✓ Foruen Plazan.

17,30 ITXAROPENA ABESBA-  
TZAREN KONTZERTUA

Zuzendaria: Nerea Ugarte

✓ Foruen Plazan.

## 1 LARUNBATA

17,00 ZINEA

"Las aventuras del Baron  
Munchausen"

19,30-22,15 ZINEA

"Amor a quemarropa"

## 2 IGANDEA

17,00 BIDEO EMANALDIA

"Comitments" eta eztabaida

✓ Kimetz Elkartearen

Antolatzailea: Jarrai

17,00 ZINEA

"Las aventuras del Baron  
Munchausen"

19,30-22,15 ZINEA

"Amor a quemarropa"

## 3 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"Amor a quemarropa"

## 4 ASTEARTEA

11,30 TXONTXONGILOAK

GORAKADA taldearen

"Reziklatex" antzeslana.

✓ Udaleko Biltzar Aretoan.

## 5 ASTEAZKENA

18,00 ERREGEEN ETORRERA

Kabalgata ondoren erregeek

haurren eskutitzak jasoko dituzte.

✓ Foruen Plazan

## 6 OSTEGUNA

10,30 BANDAREN KALEJIRA

✓ Foruen Plazan

11,30 UMEEN MEZA  
ERREGEKIN

✓ San Bartolome Parrokian.

12,30 BANDAREN KONTZERTUA

✓ Ikastolan

## 7 OSTIRALA

17,00 BIDEO EMANALDIA

"La agenda oculta"

Ondoren: Eztabaida

✓ Kimetz Elkartearen

Antolatzailea: Jarrai

**OHARRA:**

Urtarrilaren 5,6,7,8 eta 9an ere zinea egongo da, baina oraindik zehaztu gabe daude izenburuak.



## Etxebizitzak

Pisu bat salgai. Ubitarte 11. zenbakian.  
**Tel. 74 12 07 (Iñaki - Mertxe)**

Etxe bat saltzen dut Urasandin. 1. pisua. **Tel: 75 51 69**

Etxe bat daukat alokatzeko. Altzariak dauzka. Pedro Migel Urruzuno kalean (Olatz altzari denda ondoan)  
**Tel.: 74 08 09**  
**3,30etatik - 7,30etara.**

## Lana

Aizu etxeokandrea!, perfumeria apainketa eta kosmetikan ari den frantziar multinazional batek emakumezkoak behar ditu. Salmenta zuzena. Diru etorri oso ona. Muestrario bikaina publizitatez lagundua. Aukera ederra zuretzat.  
**Deitu arratsaldeko 7etatik aurrera 51 04 53 zenbakira.**

Matematika, fisika eta kimika klaseak ematen dira BUP, COU eta FP. Gaztelaniaz.  
**Javier Telf: 74 13 11**

## Salerosketak

Eskaladarako 50 m. eta 11m.m. diametroko soka, arnesa, katu hankak (42-43), magnesio boltsa, segurtasun mosketoia eta zortzi bat saltzen ditut.  
**Gaueko 10,15etatik - 11etara 74 00 30 Imanol Azpiazu.**

Frigorifiko bat erosiko nuke. Ate indibiduldun kongeladore txiki batekin. Tel: 74 13 38  
Eguerdian deitu

YAMAHA TZR 80 bat saltzen dut. **Tel: 74 41 12 Nekane**

Anayak etxean garaje bat alokatzen da. Bi kotxerentzat. "Altillioa" du. Almazenerako aproposa. **74 34 65**

Brother trikotosa bat saltzen dut., bigarren eskukoa. Marrazkiak egiten ditu kolore askorekin. Prezio merkea.  
**Tel: 74 18 51**

Bigarren eskuko Renault 12 Bi- 1988 Y salgai. Prezio egokia.  
**Tel.: 74 41 32 Fernando**

OPEL CORSA GT 3 ate SS-AH saltzen da.**Tel.: 74 01 17**

Gasezko estufak erosiko nituzke.  
**Telf: 74 08 95 Maite**

San Roke auzoan garaje bat daukat alokatzeko.  
**Telf: 74 33 78**

Garaje bat saltzen da. Bi kotxerentzat espazioa eta leku onean. Modu onian.  
**74 23 44 eguerdiko 12ak baino lehen.**

Bi bizikleta BH tolesgarriak saltzen ditut. 16.000 pta biak.  
**74 04 59**

## kontaktuak

Hi, gazte!! Traban dauzkaken diska, zinta eta konpaktoak, zaharrak, berriak, oinguk eta lenguak jasotzen ditugu. Deitu arratsalde ZAZPIKira 74 34 74 edo bialdu 70 postakutxatilara. Mila esker!!

Karitasek familia bati emateko butano txikidun estufa bat behar du. Inork emateko bezala balu, deitu.  
**74 15 09 / 74 12 57**

Untzon taberna istera doanez, bertan dagoen tresneria salgai jarriko dugu. Kamarak, Kafetera, Ontziak, kazuelak... Informazio gahiago nahi duenak dei dezala **74 00 35** Jesusa.



*Edozein adineko  
pertsonek  
opariak dauzkaqu.*



# ERAKUTSI

Seat Cordoba da. Diseinu berria. Probokatzailera bere prestakuntzetan.  
Bikaina seguritatean. Ekipamenduan. Ezingo duzu aguantatu.  
Erakutsi.



## TEKNOLOGIA ALEMANA

**SEAT**  
*Bai!*



Eibar Motor, S.A. Otaola hiribidea, 17 - Tel. 11 36 42 - EIBAR